

**IRUNGO UDALAREN ETA
TXINGUDIKO ZERBITZUEN
MANKOMUNITATEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA
IRUNGO OLABERRIA AUZOAN
UDAL FINKA BATEAN DAUDEN
PUTZUETAKO INGURUMEN
TRATAMENDURAKO
IRTENBIDEAK AZTERTZEKO ETA
DISEINATZEKO**

**CONVENIO DE COLABORACION
ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE
IRUN Y LA MANCOMUNIDAD DE
SERVICIOS DEL TXINGUDI PARA
EL ESTUDIO Y DISEÑO DE
SOLUCIONES PARA EL
TRATAMIENTO AMBIENTAL DE
LAS BALSAS UBICADAS EN UNA
FINCA MUNICIPAL EN EL BARRIO
DE OLABERRIA DE IRUN**

Irunen, 2016ko uztailak 8

En Irun a 8 de julio de 2016

BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, José Antonio Santano Clavero, Irungo Udaleko Alkate-Lehendakari jauna, haren ordezkaritza duen aldetik jardunez.

Por una parte: Don José Antonio Santano Clavero, Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Irun, actuando en la representación que ostenta del mismo.

Bestetik, Txomin Sagarzazu Ancisar jauna, Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateko Presidenteordea, haren ordezkaritza duen aldetik jardunez.

Por otra parte: Don Txomin Sagarzazu Ancisar, Vicepresidente de la Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, actuando en la representación que ostenta de la misma.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

I.- Irungo Udala da 1995etik, Irungo Olaberria auzoan dagoen eta bere garaian Matadero Ernesto Montero Alonso SA eta gero Sucesores de Ernesto Montero Alonso SA enpresek abereak hazteko eta

I.- El Ayuntamiento de Irun es propietario desde 1995 de la finca, sita en el Barrio de Olaberria de Irun, que en su día albergó la actividad de cría y engorde de ganado inicialmente por parte de la sociedad

gizentzeko jarduerak egiten zituzteneko finkaren jabea.

Matadero Ernesto Montero Alonso, S.A. y luego por parte de Sucesores de Ernesto Montero Alonso S.A.

II.- Finkaren barruan, lau putzu daude, Montero Putzuak esaten zaie, eta mailakatuta daude hegalean, Malkorra edo Epele errearen (mendebaldera) eta Iturri errearen (ekialdera) artean, eta GI-3452 errepidetik joaten da haietara.

II.- Dentro de la finca se localizan cuatro balsas, conocidas como Balsas de Montero, situadas escalonadamente en ladera, entre las regatas Malkorra o Epele (al oeste) e Iturri (al este), accediéndose a ellas desde la carretera GI-3452.

Lau putzuak joan den mendeko 80ko hamarkadan diseinatu ziren, garatzen zen abere-jardueraren esparruan, jarduerak berak sortutako minda-arazketa konpontzeko.

Las cuatro balsas se diseñaron en los años 80 del pasado siglo en el marco de la actividad ganadera desarrollada en la finca para solucionar la depuración de los purines generados en la propia actividad.

III.- Jarduera amaitu zenean, hain zuzen 1993 eta 2003 artean, orduan Txingudiko Uren Mankomunitatea zenak, gaur Mancomunidad de Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, Bidasoa Beherea eskualdean Hondakin Urak Tratatzeko Estazioarik ez zegoenez, goiko putzua edo 1 putzua erabili zuen saneamenduko sarea eta putzu septikoak garbitzetik sortutako lohiak gordetzeko.

III.- Una vez cesada la actividad, concretamente entre los años 1993 y 2003, la entonces Mancomunidad de Aguas de Txingudi, hoy Mancomunidad de Servicios de Txingudi Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, a falta de Estación de Tratamiento de Aguas Residuales (EDAR) en la Comarca del Bajo-Bidasoa, utilizó la balsa superior o balsa 1 para el depósito de lodos de la limpieza de la red de saneamiento y fosas sépticas.

IV.- Horregatik, azken urteotan, Irungo Udala eta Mancomunidad de Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea elkarlanean ari dira putzuetan dauden hondakinak hustutzea lortzeko beharrezko diren jarduerak egiteko, haien egoera eta uraren eta lohien kalitatea ikertuz, helburu nagusitzat hartuta jarduera horiek ukitutako lurzoruak berreskuratzea.

IV.- Por ello, en los últimos años, el Ayuntamiento de Irun y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea vienen colaborando en desarrollar las actividades necesarias para lograr la evacuación de los residuos contenidos en las balsas, investigando el estado de las balsas, así como la calidad del agua y los lodos, con el objetivo final de lograr la recuperación de los suelos afectados por estas actividades.

Jarduketa horien esparruan, 2014aren amaiera aldera, Irungo Udalak gaur egun putzuak dauden lekurako jarduketa-alternatibak ikertzeko, aztertzeko eta proposatzeko azterlan bat egitea enkargatu zion Ekos Estudios Ambientales SLU enpresari. Lan horrek informazio garrantzitsua eman du putzuen kutsadura-mailari buruz eta gauza litekeen tratamenduari buruz, baina, hala ere, diagnostiko hori osatu beharra dago putzuetan dauden isurkin-masen ezagutza zehatzago batekin. Horregatik, iritzia da lagin gehiago hartu beharra dagoela putzu horietan dagoen kutsatzaile-karga zehatzeko, hondakinak kudeatzeko proiektua diseinatu ahal izateko, putzuak desagerrarazteko eta, hala behar izanez gero, lurzoruak deskutsatzeko proiektu egokiena eta ekonomikoki jasagarriena diseinatzeko.

En el marco de dichas actuaciones, a finales de 2014, el Ayuntamiento de Irun encargó a la empresa Ekos Estudios Ambientales S.L.U. la realización de un estudio de investigación, análisis y propuesta de alternativas de actuación para el espacio ocupado actualmente por las balsas. Si bien este trabajo ha aportado información relevante sobre el grado de contaminación de las balsas y su posible tratamiento, es necesario completar este diagnóstico con un conocimiento más preciso de las masas de vertido presentes en las diferentes balsas, por lo que se considera que existe la necesidad de tomar muestras adicionales para determinar la carga de contaminantes presentes en las distintas balsas, al objeto de poder diseñar el proyecto de gestión de residuos, erradicación de las balsas y, en su caso, descontaminación de los suelos más adecuado y económicamente más sostenible.

V.- Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen estatutuetako helburuen artean dago hondakinen gaian udal eskumenaren esparruan sartuta dauden zerbitzuak ematea. Horrek gaiari egoki ekiteko ezagutza teknikoak, esperientzia eta beharrezko bitartekoak ematen dizkio, eta, gainera, azpiegiturak ere erabiltzeko aukera dauka azkenean diseinatuko den proiektuaren zenbait fasetan erabili ahal izateko.

V.- La Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea tiene entre sus fines estatutarios la prestación de los servicios incluidos en el ámbito de la competencia municipal en materia de residuos, lo que le dota de los conocimientos técnicos, experiencia y medios necesarios para un adecuado abordaje de la cuestión, además de disponer de infraestructuras que tal vez puedan ser empleadas en algunas fases del proyecto que finalmente se diseñe.

-Hasita dagoen lankidetzarekin jarraituz, asmoa da behar diren jarduerak garatzea ukitutako lurzoruak berreskuratzea lortzeko, gerora lur azpiko uretan eta inguruetakoko tokietan edozein gorabehera

-Siguiendo con la colaboración ya iniciada, se pretende desarrollar las actuaciones necesarias para conseguir la recuperación de los suelos afectados, evitando cualquier futura incidencia o

edo eragin saihesteko. Horregatik, Lankidetzak Hitzarmen bat izenpetzea proposatzen da, honako termino hauetan:

afección en las aguas subterráneas y espacios aledaños, por lo que se propone se suscriba un Convenio de Colaboración en los siguientes términos:

HITZARTZEN DUTE

LEHENA.- Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak bere gain hartuko du putzuetan dauden isurkin-masen azterlan zehatzago bat egitea, gerora jarduketako faseetan egin litezkeen esku-hartzeen alternatibak aztertzeke, onena hautatzeko xedez, eta Monteroko putzuak desagerrarazteko behin betiko proiektuan jasotzeko.

Horretarako, Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak Ekos Estudios Ambientales SLU enpresak 2016ko martxoan egindako ikerketan eta lohiak hobeto ezagutzeko a priori beharrezko iritzitako putzuen laginketa osagarrietan lortutako emaitzak ebaluatuko dira. Eta lortutako emaitzak aztertuta, dagozkion kontsultak eta gestioak egingo ditu Ingurumen Administrazio eskudunekin eta kudeatzaile baimenduekin eta enpresa espezializatuekin, merkatuan erabilgarri dauden konpontzeko teknika onenak identifikatze aldera, betiere kostuak, denborak, partzelako leku-erabilgarritasuna, garraio-kostuak, berezko prozesuetan duen eragina, eta abar kontuan hartuta.

ACUERDAN

PRIMERO.- La Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, asumirá la elaboración de un estudio más preciso de las masas de vertido presentes en las diferentes balsas para con posterioridad, analizar las distintas alternativas de intervención posibles para las distintas fases de la actuación al objeto de seleccionar la óptima, y plasmarla en el proyecto definitivo de erradicación de las balsas de Montero.

A tal efecto, la Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, evaluará los resultados obtenidos en la investigación realizada por Ekos Estudios Ambientales S.L.U en marzo de 2016 y en los muestreos adicionales de las balsas que a priori se consideran necesarios para un mejor conocimiento de los lodos, y a la vista de los resultados obtenidos, realizará las consultas y gestiones oportunas con las Administraciones Ambientales competentes y con gestores autorizados y empresas especializadas al objeto de identificar las mejores técnicas de remediación disponibles en el mercado teniendo en cuenta coste, tiempos, disponibilidad de espacio en parcela, costes de transporte, incidencia en procesos propios, etc.

Aurretik identifikatzen diren faseetako bakoitzerako abantaila gehien dituen irtenbidea identifikatu ondoren, putzuak desagerrarazteko behin betiko proiektua egingo da, eta proiektu horretan xehetasunez justifikatuko da posibleen artean hautatuko esku-hartzearen alternatiba.

Behin betiko proiektua aztertzeko eta diseinatzeko lehenengo fase horretatik erator litezkeen gastuak Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen kargura izango dira.

BIGARRENA.- Horretarako, Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak Hitzarmen honen xederako modu egokiena erabakiko du, bertako Servicios de Txingudi-Txingudi Zerbitzuak SA kudeaketa-sozietatearen bidez, bertako edo kanpoko bitartekoekin, eta horrek ez du berekin ekarriko, inolaz ere, Irungo Udalak berezko dituen ahalmenak eta funtzioak eskuratzea.

HIRUGARRENA.- Bi aldeek hitzartzen dute 12 hilabeteko epea ezartzea, Hitzarmen hau sinatzen denetik, lana amaitzeko eta Irungo Udalari komunikatzeko. Nolanahi ere, epe hori luzatu ahal izango da, arrazoi justifikaturik balego.

LAUGARRENA.- Era berean, Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak, bertako kudeaketa-sozietateko edo kanpoko langileen bidez, behar den laguntza teknikoa emango dio

Identificada la solución más ventajosa para cada una de las fases que a priori se identifican se elaborará el correspondiente proyecto definitivo de erradicación de las balsas, en el que se justificará de forma pormenorizada la alternativa de intervención seleccionada de entre las posibles.

Los gastos que en su caso puedan derivarse de esta primera fase de estudio y diseño del proyecto definitivo, correrán a cargo de la Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea

SEGUNDO.- Para ello, la Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea determinará la forma más adecuada de llevar a efecto el objeto del presente Convenio a través de su sociedad de gestión Servicios de Txingudi-Txingudi Zerbitzuak, S.A, con medios propios o con externos, sin que ello implique, en ningún caso, la atribución de potestades y funciones propias del Ayuntamiento de Irun.

TERCERO.- Ambas partes acuerdan establecer un plazo de 12 meses desde la firma del presente Convenio para la finalización del trabajo y su comunicación al Ayuntamiento de Irun. En cualquier caso, dicho plazo podrá ser prorrogado si existieran razones justificadas.

CUARTO.- Asimismo, la Mancomunidad de Servicios del Txingudi-Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, por medio de personal propio de su sociedad de gestión o personal externo, prestará al Ayuntamiento de Irun la asistencia técnica

Irungo Udalari, eta inolako kargurik gabe, Monteroko putzuak desagerrarazteko behin betiko proiektuan jasotzen diren lanak egikaritzeko, eta hari transmisorea izango da Irungo Udalaren, Ingurumen Administrazioaren eta lanen kontratist(ar)en artean.

BOSGARRENA.- Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta, beraz, bere interpretazioa eta garapena administrazio publikoen arteko lankidetzeta-hitzarmenei aplikagarri zaien administrazio-araubidera doituko da. Edozein alde hartu diren konpromisoak beteko ez balitu, bestea hitzarmena baliogabetzea erabaki ahal izango du.

Eta azaldutako guztiarekin adostasuna agertzeko, hitzarmen hau izenpetzen da goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

necesaria y sin cargo alguno para la ejecución de los trabajos que se contemplen en el proyecto definitivo de erradicación de las balsas de Montero, ejerciendo de hilo transmisor entre el Ayuntamiento de Irun, la Administración Ambiental y el/los contratista/s de los trabajos.

QUINTO.- Este Convenio tiene naturaleza administrativa, por lo que su interpretación y desarrollo se ajustará al régimen administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas. En caso de incumplimiento de los compromisos asumidos por cualquiera de las partes, la otra podrá acordar su resolución.

Y en prueba de conformidad con todo lo expuesto, se firma el presente Convenio en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

